

## **MARKINA-XEMEIN / 'Persepolis' komikiagaz amaitu da Irakurleen Txokoa**

**Hainbat genero landu dituzte aurten, eta egileekin liburuez berba egiteko aukera eduki dute parte-hartzaileek.**

E. Mugartegi.

Marjane Satrapiren Persepolis komikiaren eztabaidagaz amaitu zen, atzo, ikasturte honetako Irakurleen Txokoa. Gustura geratu dira aurten ere bibliotekako arduradunak ekimenaren erantzunagaz, eta datorren urtean ere mantentzea espero dute.

Talde bi ibili dira, euskarazkoa bata eta gaztelaniazkoa bestea, eta bietan parte-hartze eta eztabaida handia egon dela azpimarratu du bibliotekako arduradun Igor Idoetak: 20 pertsona ibili dira gutxi gorabehera talde bakoitzeko, eta eztabaida interesgarriak sortu dira, azaldu du.

Hainbat genero landu dituzte, kronika, ipuina eta nobela, esate baterako, eta poesia eta komikia ere irakurri dituzte. Emakumeen literatura, itzulpenak, obra berriak, Txakurrari gauean gertatutako istripu bitxia esate baterako, zein XIX. mendeko testuak irakurri dituzte, eta gaztelaniazko taldean itzulita dagoen euskarazko literatura irakurri dute, jakitera eman du Idoetak. Gainera, zenbait saiotan idazleek parte hartu dute. Horrela, Miren Agur Meaberen Urtebete itsasargian poesia liburua aztertzeke aukera eduki zuen euskarazko taldeak idazlearen beraren eskutik, eta Azalaren kolorea liburua komentatu zuten talde biek idazlearen laguntzagaz.

### **Taldeak gustura**

Miren Agur Meabegaz, gainera, Yolanda Arrieta eta Goizalde Landabaso idazleek ere parte hartu dute Irakurleen Txokoan. Talde biek landu zuten Yolanda Arrietaren Jostorratza eta Haria liburua, eta euskarazko taldeak Korte bat mesedez-en nondik norakoak jakin izan zituzten. Goizalde Landabasori esker. Idazleagaz liburuaz berba egin ahal izatea ondo dago, eta taldeak gustura egon direla uste dugu, esan du bibliotekako arduradunak.